AZALPENAK

ATZIPIA

LAUAXETA

Maitale zintzuak ziran, zintzorik ba'zan, Bilbao'ko txaiderik ederrenean bixi ziran gaste bi. Neskatxa oso dotore yantzita ibilten zan beti. Aurpegijan autsa, margo-gorrijak eta begi urdin-oztiñak erabilten ebazan.

Erregiña bat igaroten zala bere endotik, orok uste ixaten eben, neskatil a ikustian. Bere senar-gaya be zaldun aberats baten antzean ibilten zan. Beti "Kamel" zigarruak erretan, ginbailla dotoria ta soñanzki onenak. Ezkon-gai ziran eta berexibiletan juaten ziran egurastuten be.

Alkarren atzean beti be ezin ibilliko ziran ba, ta ezkontzeko aldija eldu yaken. Etxerik ederrena artu eben bixi-ixateko. Eta etxetresnarik politenak erosi be bai. "Arruti" etxiak eztauz alako etxetresnak egiten, ezta antzekorik be!

Senar-gayak apari ixugarrija emon eutsoen bere adizkidiai. Aberatsaren otsa erabillan eta adizkide asko eukon. Aberatsak adizkidetan milla eukiten dabez. Neskatilleak be askari galanta egin eben Torrontegi etxian. Baña ez batak ez bestiak ez eban ordaindu.

Zegaitik baña ez ete eben ordaindu ba?

Gero jakingo dozube. Jarraitu dagigun aurrera.

Begoña'ko Ama neskutzaren ertxadonan ezkondu ziran eta ogeta belbil ederrak eldu ziran ate aurrera. Emazte-gayak ikeragarrizko eun miak eukozan. Buruba estalduta, lora txorta zurija eskubetan. Areik aberatsak ezpa ziran, ez eguan aberatsik munduban. Gixona be "frac" eta gusti eldu zan. Gotzain jaun bat etorri zan, eztakit nondik areik ezkondutera..

—Au bai dala ezkontza dototria—, atsotxu batek iñuan.

—Bai, onek aberatsak ixan biar dabe. Zelako yanzkijak daruez gero, zelakuak!

—Zorijontsubak ixan daitezala ba.

—Bai zorijontsubak ixango al'dira. Eta uste dot ixango dirala, dirudunak dira ta. Txindija dozu zorijonaren erdi, ludijon.

Ezkondu ziran geure gaste dotore oneik eta pozik urten ziran ertxadonetik. An ziran, labankerijak, esku-muñak, agurrak eta goralbenak. Poza ta atsegiña! Juan diran Artxanda'ra be amaiketako dotoria egiteko. An be ardo gozuak, edari onenak eta basurdia, apirkako-olloen iztarrak eta abar jan ebezan. Ordaindu barik itxi eben. Ezkongayak ibiltadi luze bat egiten urten ziran bultzijan, baña lenago sartu ziran euren etxe barrijan. Bakarrik antxe alkar aurkitu eben.

—Zorijontsuba naz.

—Bai neu be. Iñoiz ez neban uste neugaz ezkonduko zintzanik.

—Neuk be bildur ori euki dot ba. Zeure aldian ezerez nazalako.

—¡Ori uste ixango zenduban ba! Neu zer naz zeure onduan ba ebe emakume ori

—Orain pozik bixiko gara alkarrekin ementxe.

Asi ziran etxia ikusten. Emakumiaren gela lenengo betestu eben. An ziran mindaka yantzijak, usañak, margo-gorrijak eta txiribirikerijak. Mai baten ganian ingi pillo ikeragarri bat ikusi eban gixonak. Zer ete ziran ingi areik?

—Zer dozuz ingi orreik? Factura antza daukoe...

—Bai facturak dira.

—Orren beste? Zer erosi dozu ba?

—Ara ba etxeko tresnak amar milla laurleko. Neure yantzijak ogei milla. Lagiñai emonliko askarija milla laurleko. Elastuna, samako pitxijak, arrakadaka eta abar ogetamar milla. Ezkongayetan ibilli dogun belbillenak zortzi milla. Eta olan agertu ziran eun milla laurlekoren balijoko gauzak.

—Lar deritxazu ezta?

—Ez, lar eztira.

—Ene, au poza! Uste neban lartxu eretxiko zeuntsoela...

—Ez. Orain neure facturak erakutsiko dautzudaz.

Eta gertu eutsozan bere facturak Adizkidiai emoniko aparija geroko cabate'ko edarijak amar milla laurleko. Soñanzkijak, ginbaillak, ezkontzako belbillak, estaunak, bazkunetako bezuzak, eta beste amar milla kopla: gustiz ezer be ez. un eta ogei milla laurleko.

—Asko deritxazu ezta?

—Ezta, ezta askorik.

—Bildur nintzan zer esango zenduban edo.

—Nik zer esango neban ba. Ori zeuk esan biar dozuna da ta.

—Nik...?

—Bai ba. Eralgi dodana ta zeuk eralgi dozuna„ gustija ordaindu biarko dozu...

—Ordaindu biarko dodala? Zeeer?

—Eztaukot txindirik. Aberatsa zaran ezkero zeuk ordainduko dozuzala ta eralgi dodaz laurleko areik...

—Ba nik zeu aberatsa zintzalakuan eralgi dodaz. Eztaukot txinditan apurtxu bat be.

—Ai ene! Jakin ixan ba neban...

—Zer jakin ixan ba zeban?

Baña emazte lirañak ezer ez eutson eranztzun konortu barik jausi zalako gela erdijan.

Egunekua

¡AZKATUTA EZ!

Euzko-Alderdi Jeltzalia'k bere 50'garren urteurren urretsuba ospatu daunezkero Jel-Alderdijaren ixena bala-bala entzuten da egaletan.

Aberri-egunatzaz zer edo zer esango eztaben gitxi ixango dirala uste dot emen, Euzkadi'n eta Euzkadi'tik at be askorik ez.

卐 卐 卐

Berbizkunde egunian jeltarrok ixan gebaz gurendea, gurenda aundija ixan be ixan zan, jeltarrak eztiranen burubetara oldozkairik asko eruateko gurendea.

Bakaldarrak, ba - dira, arrituta diñue: "gangarkerizko zaratatxu bat be etxaken entzun".

"Geuk uste geban baño azijera obakuak dira jeltarrak; "cavernicolaguak" zirala uste geban"—diñue erkal-zozolistuak.

Karlatarrak Euzkadi'ko alderdirik ornidentzat etsiten gabez, ta garan lako azkezaliak ezpa-gintzakez, Karla'ren oñatzai itxita Jaungoikua eta Lagi-Zar ikurrinpera be etorriko litzakez aurki. "¡Gora Euzkadi!"-ri ederto deritxue, baña España'ri lotuta dala; "Euzkadi, bai—diñue, ba—baña ¡Azkatuta ez!".

卐 卐 卐

Tamala da, ba, Euzkadi azke dala ikusi gura ez ixatia. Ulerkatxa benetan maite dan gauza bat arerijuen jopu biurtuta ikusi gura ixatia. Ziñistu eziñekua norberaren ameari beñola atzipez etxeratu yakozan urrotzak iduneratu eutsezan estuntzetatik azkatu gura ez ixatia. "Euzkadi bai—iñuan. ba, karlatar batek—baña ¡Azkatuta ez!"

卐 卐 卐

Ondiño egun askorik eztirala durangar jaupari agurgarri bataz karlatarretzazko autu bat erabilli geban. Bere gurasuak karlatar-karlatarrak ixan zirala esan euskun, ta eurak be karlatarrak ixan zirala, orduko karlatarra ixatia gaurko jeltzalia ixatia lez zala-ta.

卐 卐 卐

Jauparijau ondiño kaskondutxuba zala, durangar endore buru-erakutsi-gurako batek España'ko Kistiñe bakandercagaz Durango-ziar ibil-guriak igituta-edo, axe, bakanderea, Durango'ra ekarri biar ebala esan ei-eban, eta alegiñak-alegin egin ondoren, nekezko baten baño ezpazan be, Kistiñe XII'gn. Albontsa'ren alarguna Durango'ratutia jaditxi ei-eban.

Eta durangarrak, karlatar-karlatarrak, bai, baña, ikusgurakotxuabak be bai-ei-ziran-ta, bakanderearen etorrerako arrerara, geyenak erdu ei-ziran; danak ez erraiti, edestijonen barri emon euskun jauparijaren amea ez ei-zan juan, ba, ta ez ori bakarrik, juan ziranakaitik be asarre-asarre ixan ei-zan-eta.

"Geure "foruak" eta eskubide gustijak kendu dauskuzan bateri orren beste arrera? —esaten ei-eban emakume karlatar arek. Eta aren semiak, orduban mutiko kaskondutxuba zanak eta gaur jaupari agurgarrija dan onek, itz areik orduko karlatarren euzko-abertzaletasuna agertuteko esaten dauz.

Ikusten danez, ba, orduko karlatarrak ¡EUZKADI AZKATUTA! gura eben karlatarrak ziran, eta ez gaur egungo karlatar batzuben antzekuak: "Euzkadi bai baña ¡Azkatuta ez!"—esaten dabenak lakuak.

卐 卐 卐

Ikusten danez, ba, irakurle, gu euzko abertzale jeltzaliok, aitatu dogun karlatarra baño bijotz-samurraguak, kistarraguk gara. Guk eztogu eskatzen, ba, kistoren erijotzarik; ¡Barrabas azkatzerik bez!... Guk eskatzen dogun bakarra, zuzentasuna da; Urtzi'ri lez Kaisar'ari be jaokena emotia. Aberri-Amea'ren iduneko jopu-estuntzak urratuta Euzkadi azkatutia. "¿Euzkadi bayetz baña lotuta dala?"... ¡Ez, olako ankerkerijarik, irakurle, ez!: ¡Euzkadi bai! —guk erantzungo dautsegue—. ¡Euzkadi Azkatuta!

URIBITARTE'TAR IBON.

Taller ortopédico
A. GOETZE
Clínica San Ignacio. - DONOSTIA

Siaska abestija

Ene umetxuba, lo ta lo
Zeuk orain eta neuk gero,
Zeuk gura dozun ordu batian
Bijok egingo lo ta lo.

Munatxubetan bedar gurija
Baratzan barriz loria,
Siaskan dagon larrosa ederra
Gustijak baño obia.

Gotzontzubaren lirañia
Maitasun garbiz sortuba,
Eure amaren bijotzarentzat
Pozgarri benetakua.

Goi-urdiñeko ixar dirdirak
Lañuak ostendu dituz,
Gure umien begi politak
Malkuak ezotu dituz.

Ene maitia maitetxu,
Oraintxe negarrez dago,
Onen negarra gozuago da
Askoren barria baño.

Zerubetako Erregin altsu
Miren Amatxu laztana,
Gozokijakaz poztu egixu
Geure txikitxu kutuna.

Gallurretatik etorri dira
Usuak eta eperrak,
Moko leunetan ekarri dabez
Ama Miren'en gozuak.

Usuak dira poli-politak
Eperrak barriz ederrak
Egotxubakaz legortu dabez
Umian begi ezuak.

Ene umetxuba lo ta lo
zeuko orain eta neuk gero,
zeuk gura dozun ordu batian
Bijok egingo lo ta lo.

MAÑARIKO.

Uar[illegible] polita dozu au. Sarrijago egix[illegible] katuten dau eta.—L.

ERRIJETATIK

ZAMUDIO

EUZKEL-IXENA. — Illa onen 17'gn. egunian ugutzau eben erri onetako ertxadonau Ormaetxe'tar Jon Joseba eta Elorriaga'tar Jakinde'ren alabea Miren Begoñe euzkel-ixena esarri eutsen, Zorijonak.

ERIJOTZA'K. — Ormaetxe'tar Bitoren "Mendiko-zarra" basetxeko mutil gastia, Ikurton deunak eta doipuru onespena artu ondoren illa onen ogeta lau garenian au il zan (G. B.).

Bai-ta bere egun orretan il zan Bilbao'tar Eukeni "Santo Tomás" basetxeko amaika urtedun mutil gastia (G. B.).

Euren guraso atsekabetubak eta sendijak artu begije neure tamal-agurrik bijotzekuena. Otoi bat irakurle, il diranen gogo-aldez

ELEZKIXUNAK. — Aste-gurena oso ederto ospatu dogu erri onetan. Eguben eta bariku arratsaldean itzaldi eder batzuk entzun genduzan, txonislarija zala Belaustegi'tar Pantzeska, Durango'ko jaupari agurgarrija.

MARTIKORENA
Bekiyeta'ko gaixoen zendagillea
Garibay, 13 bis, 2.º. DONOSTIA.

Polito azaldu euskun Josu'ren ertxotzea. Egun bijotan osteko andiak eldu ziran txadon onetara bai emakume eta bai gixoneskuok bere.

EZPATADANTZA. — Argiro ikusten dogu erri onetako gastien artean dagon indarra euzko-dantzatarako. Igaro dau urtian egin ziran ezpatadantzari andi talde bi, eta aurten oraiñ dabil ikasten amairu urte inguruko txiki talde bat. Onek lenangorik dabiltz txistu-ta gusti, ba errian daukogu, polito ikasi ta dauko amalau urtedun mutil bizkor bat. Irakaslia da Mestraitua'tar Alexander abertzale zintzoa, lengoa Bilbao'ko "Euzko Gastedija„'ko ezpatadantzarija ixan zana.

ABERRI-EGUNA.—Asko eta asko ixan giñian egun-orretan erri onetatik Bilbao'ratu giñian abertzaleak. Jaupa entzunda gero urten geuduban seiterdijek inguruan erri'ko ezpatadantzariak geugaz doguzala, eta bidian batu giñian, lenengo Derio'koakaz, gero Sondika'koakaz eta askenez Txori-Erri gustiko abertzaliakaz.

Hipólito Irigaray
Medicina general. Cáncer y Tumores
Radium y Rayos X.
Prim. 32. DONOSTIA. Tl., 13.783.

Txori-Erri gustitik oñez juan giñianak bi-milla'tik gora ixan giñian. Asua'tik aurrerantza zan ikusgarrija; aurretiko joyazan mendigoxaliak, gero Txori-Erri gustiko ezpatadantzariak euren ikurriñakaz eta onen ostian ¡zelan ez! ¡emakumiak! eta beste abertzale guztijak .Asko ziran ba, Sondika eta Asua'tik yuan ziran emakuma euzkotarrak, euren ikurriñak lepuan ebezala.

Erri ontatik bere, poztuteko gaña emakume yuan ziran, ba orretatik errijetatik beste yuan ez-zanarren, konturatu biar gara, bide asko dagola erri ontatik Bilbao'ra emakume bat oñez yuateko.

Bilbao'n eguna igaro ederto-eta gabean etxeratu giñian oraindiño geure gogoetan aberri-usaña gendubala; gogoratuten jakuzan... Sabin - Etxia... ango itzaldijak... Arriaga... eta abar; itz baten amaituteko, gogoratuten yakuzan Euzkadi, Sabin eta geuk euren omenez egiñiko jayak.

Astu eziñeko eguna zan, euzkotar gustijentzak, ama ezagututen daben seme gustijentzak.

Sabin ludian balego ¡zer esango ete-eban!

IDAZLEAI.—Aspalditsuon ez, dogu irakurten emen inguruko errijetako izparrik izparringi onetan. Ez da ba, euzko-idazlerik ez dagoalako; Lezama badagoz, Sondika'n be bai eta onan erririk geyenetan Erri ontako idazleak bere, aspaldijon luak arturik dagoz.

TXIMISTA BAT.

J. GOIKOETXEA
Médico-DENTISTA
MAYOR, 2. -- DONOSTIA

IBARRANGELU'TIK

Erri onetako abertzaletasunagaitik egiñiko neure deya ezda ixan utsa. Igazi dan igandian "Baso-Arte„'k ederto erantzun eutzon ontzat artuta dei orrei, eta berak be, dei bardiña egiten-dausku abertzaletasunaren zorijonez.

Badakit erri onetako emakumak lo ezdagozana, ba Ibarrangelu oraiñ artian be, abertzaletasunian oso zintzoetarikua ixan da. ¿Zelan gomutau ez ba, aberri alde lenengo arnasa bixitxa emon eban ziñopa edo martiri-andija geure auzo-errijan ixan bazan, ¿nok entzun ez dau Ibinagabeitia'tar Gal zintxuaren ixena? Ibarrangelutarrak beti ixan-dira euzkotarrak eta zintzuak atan be. ¿nok aztu ete dau geure erritarren asarre gogorra geure bijotzetako asarre benetako garratza, euzkeldun zintxo bat, euzkeldun eredua jaun agurgarri bat soritzarreko (directorio) asoian erritik jaurti euzkubenian? ordiño miña ez da osatu, euzkeldun samintasuna geugaz dogu, baña... ganko etsai gustijen gorrotua ikusirik geure Jaungoiko eta Euzkadi'rengana. Ibarrangelutar gustiyok alkartu biar dogu gustiyok bat egiñ, etzai gogorrok gu baño zakonago dabiltzaselako ,oraintzu itzaldi bat egiñ eben erri onetan, eta ¿gu zelan ixillik? ¿zegaitik lo egon? ez ba, berbizkunde egunotan itzartu-egin biar dogu, eta zorijonezko alkartasuna lortu.

¡Itzartu ba, itzartu...!

ARRIEDERRA.

J. M. SANSINENEA
Garibay, 5, 2.º Teléfono, 1-24-63
Enfermedades de los niños
Consulta de tres y media a seis, excepto los miércoles y sábados.

SEGURA

ELIZKIZUNAK. — Aita Umerez'ek itzaldi bikañak egiñez eta asteari dagozkion elizkizun ederrakin ospatu degu Aste Deuna.

ABERRI EGUNA.—Larunbat gabean mendigoxaleak mendi-galluretan piztu zituzten suak deituta igandean Bilbaoratu ziranak ekarri duten oroimena ez da noia-naikoa. ¡Etzegok ura austekorik! diote. ¡Eta ezta gure biotzkadak aztueraz'ko dizkigunik ere!

AIZKO-JOKUA.—Astelen arratsaldean jokatu zuten, Idiazabalgo Otazabalgo mutil jatorrak eta emengo Aldanondo'ko adiskidetasuneko aizkol-joku eder-eder bat. Iñork uste etzuen jendetza ingururatu zan eta guziak atsegintsu uzteko eran biak zintzo jokatu ondoren Idiazabaldarrak irabazi zuan. ¡Zorionak eta ortarítxen adiskidetasunean zintzo jarraitu!

ANTZERKIA. — Astelen arratsaldean Biator Deunaren ikasleak egin zuten antzerki edo teatro jai polit bat, iru lan "Aitaren Bildur" "Periaren Zalapartak", "Sasi-Eskola" euskeraz eta erderazko bat antzeztuaz. Iñork uste etzuen bezela lan egin zuten eta bai txalo ugariak aterazi ere ¡Zorionak!

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.º DONOSTIA

ERIOTZA.—Azken laguntzak artu ondoren Jaungoikoak deitu dio Markitegi'ko Intxausti'tar Jokin eitona onari. Atsekabean laguntzen diegu bere sendikoei, irakurleari aita gure bana eskatuaz. ¡Goian Bego!

AGURTU.—Egun auetan emen agurtu ditugu. Elgoibar'ko Peziña, Maruri'n irakasle dagon Artzeluseta Iruña'n ikasle dagon Artzelus'tar Joseba ta bere arreba. Baita ere agurtu degu Zumarraga'ko Emakume-Abertzale-Batza'ko Artzelus'tar Miren,

BIZITZEZ.—Tolosa'tik bizitzez etorri zaizkigu, Gorrotxategitarrak.

ELIZAKOAK ARTUTA.—Gexorik eta elizakoak artuta dago Erramone, Aldasoro'ren Alarguna.

OTARRA.

Casa "Tiburcio"
RESTAURANT. VIAJEROS. BAR.
Fermín Calbetón, 40. Tlf., 13.130. Donostia.

MAÑARI

ASTE GURENA.—Eguben Gurenez, goxian, Jaunartze ugarijak ixan ziran. Amarretan, egunari yagokan mezia ospatu zan. Eta arratsaldian be eleizkizun ederra egin zan; ibildeuna, beti lez, ildegi ingurutik egiñaz.

Baita, Bariku Gurenez be, goxian eta arratsaldian, eleizkizun ederrak egin ziran. Eta egun bi orreitan, gure txaunburu jaunak, berbaldi ederrak egin ebazan.

"ABERRI-EGUNA". — Igande goxian, "Aberri-eguna" ospatzen, emetik be lagun pillo bat Bilboratu gintzazan. Eta bertaratziaz batera ikusi gendun notintziaz ezin geyagoan ikeratu gintzazan. ¡Alako yentetzarik ikusteko be! Zenbatu gure ixatia zorakerija zan; azken bako gauzia zirudijan da.

Dr. L. Zurlarrain
Corazón y pulmones. Rayos X.
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5.
Oquendo, 28, 4.º. T. 12.662. Donostia

Igandeko eguna, egun ederra benetan! Egin ziran jai guztijak, ederrez ikusgarrijak ixan ziran da. Abertzalion bijotzak itxaropen gozuaz poztuta, asiriko bidian aurrera jarrai eragiteko jai aberkoi eder-ederrak.

LENENGO JAUNARTZEA.—Berbizkunde egunian, zortziretako mezan, umien lenengo Jaunartzea ospatu zan. Amairu neskato-mutikok, Josu Jaungoikua euren bijotz samurretan lenengoz artzeko zorijon andija ixan eben. Eta, gure umetxuak, abesti ederrakaz batera era politian Mai-Deunerautu ziralako, ikuskizun samurra ixan gendun, Zorijonak.

Barrenetxea'tar Polentxi jaunak berbalditxo polit eta samurra egin eutsoen.

JUAN ETORRI.—Igazitako astian agur tau genduzan emen, Ruiz-Salas'tar Jaime, bere emaztia ta llobia.

DR. VIDARTE
Sistemas nerviosos y mentales.
De 10 a 12 y de 2 a 5.
ELCANO, 10. segundo. -- Donostia.

—Galdakano'tik etorri zan Zubizarreta'tar Pelise anderea.

ARDIJAK.—Egunontan ainbat artalde ikusten dogu emeko soluetan prantzez-bedar gurijak jaten iñardubela. Urkuleta'ko Julian be, bere artalde ederragaz, aspalditxuban, gora ta bera dabillela emen ikusten dogu. Beronen artaldija ezta gero makala! Laster, bildots eta gaztaiakaz diru "preskua" artzen asten danian, txarto ezta ibiliko.

"Negurik ezpalitz asko ixango litzake artzain".

MAÑARIKO.

Recomendamos a todos los vascos el
: - BAR - : **"PERICO",**
Restaurant
Esterlines, 12. — Donostia. — T., 15.417.

GALDAKANO'TIK

KIROLAK.—Geure Elexalde'ko mutillak igandian izan ziran jokatuteko Durango'ko "Cultural"-ekin, ta ezeben jokatu, Durango'kuak etorri etziralako. Goxian jokatu eben Elexalde'ko ostiko tokijan ezkongiak eta ezkonduak, ta ezkongiak irabasi eben 3 ta 2 gatik. Ori da gogua.

Zelayako autarija izan zan Uriarte'tar Balasi, ta ederki egon zan.

IL DIRANAK.—Igaro dan astian il ziran Crespo'tar Josebe, ta Larrea'tar Pantzeska, artu dayela euren sendijak nire samin-agurra.

F. LOIDI ZULAICA
ESPECIALISTA EN ENFERMEDADES DE LA PIEL Y SECRETAS
ALAMEDA, 6, 1.º. - Tl. 12.929. - Donostia

Ta izparringi onen irakurleari eskatzen dautsegu Aitagure bana Idakuaren gogo-aldez.

GEXORIK.—Oiratuta dago geure adizkide zintzo abertzale Itza'tar Jon Joseba ta eskatzen dautsegu Goikuari, al ariñen osatu daitela.

IDOLOZTAUTA

Sarri entzuten doguna da igazi diran berrogeta amar urtietan gauza gustijak egin dabela aldakuntza aundija; ta ezta gauza ikus-gatxa; egitedetan esakunetan ibilkerotan-jolaskeretan, jazkeretan eta ekandu edo oit uretan, argiro dakusgu zein aldakuntza aundijak dagozan orain berrogeta amar urtetik ona; esan leike idoloztauta-atzekoz-aurrera, goiz-bera eta abar oixi garala; baña aldakuntzarik aundijenetatik baa, basurdijak egin dabe; bada aldi atan euren bixikeria, errijetatik urrun baso ezkutubetan eta oyan illunetan txakurrak be nekez idoroko ebezan tokijetan cuki eben eta, esturasun aundiren bat ixan ezik, ezeben urteten euren oyaneko lotegijetatik, gabak bere oyal baltzagaz ludija ondo estaldu arte, ta orduban be premiñezkua zalako, bada eurak eta euren umiak laketuteko biar ebezan igalijak idoro eta biltzia premiñezkua ta bidezkua zan; baiña basetxetarrak euren lan ordez Jaungoikuak emoniko igalietan kalterik egin ez egijuen gautu zediñan urten euren soluetara ta Zuzi ixijotubakin argi egiñaz idi adar oskolakin turuta jungaz uxatu oi ebezan soluetatik euren osten tokijetara.

Gaur egunian bakixube zelan bixi diran; Aldakuntza miragarrija! itxi dabez urrunetako baso eskutubak-oyan illunak, da eizari txakurren bildur bagarik jatsi dira erririk ospatsubenetara ta arturik aginpide nagusija, euregandu dabez bakal jauregi ta beste atsegin yakezan gauza gustijak; orrez ganera euren mutur zallakaz iñusartu ta jaurti ditube azpikoz gora eurai atsegin etxakezan gustijak.

Orain ezdeutsu bildurrik eiza txakurai ez zuzi argijai ez ta bere idi adar oskolen turrun otsai; au aldakuntza aundija dala esan lei, baiña ezda txikijagua euzkalerri batzubetan erdore ta ziñegotzi dagozan batzuk egin dabena; orain urte-bete bakal zale amorratuak da, oraingo basurdien etsairik gogorrena zan erribera tar lengusu jaun zanar en lagun kutunak, da, euen soluetan basurdiei artaburutxu bat be jaten isten ezeutsienak gaur oso aldatu dira basurde zaletu dira ta ez bakarrik zaletu, baita bere euren jarraitzalle zintzuak dirala ondo ezautzen emotiarren edegi dabez batzokijak, euzkal-erritxu baneka batzubetan; tamala da baña ezin ukatu egija da ta.

Abertzaliak dira
Euzkadi'n bakarrik,
iñoiz be ezdabenak
aldatzen yakerik.

GARATE'TAR J. M.

MENDIKO SUBA.—Larunbat gabean 20'an ikusi genduban mendijetan suba, ta Eguzkin-darra'ko mendigoxaliak Bizkargi'ko mendira suba egiten juan ziran suba eginda gero poz pozik etorri ziran.

Ta Euzko-gastediko txistularijak aberijaren eguneari asikerea emoteko jo eben illunkeran biribilketa polit batzuk.

Agur alai bategaz amaitu zan gabeko larunbata.

¡Gastiak olan jarraitu!

ETXE TA LURR SALDU-EROSTIA
Etxien-gain diru arrtu-emotia
INTXAURRAGA'tarr P.
Bilbao-Bailen, 3-2'g. 11.685 Urrutizk

ABERRIJAREN EGUNA.—Igande goxian 27'an etxiak agertu ziran aberrijaren ixekijagaz, ospatuteko berrogetamargarren urteurrena Sabin'ek emon ebela ikusten euzkeldunen aberri bakarri EUZKADI dala

Bertoko mendigoxaliak eta beste talde polit bat, urten eben Bilbao'rako goxeko sortzi ta erdijetan.

Bita be arratsaldian juan ziran notin asko "Pedro Mari„'ko antzerkija ikuzten.

DANTZAKETIA.—Igandian Jaunaren Berbizkundea-gatik Arana Goiri'ren zelayan egon zan dantzaketia 4'tatik 7'retarte ta gabeko 8'retatik 11'rarte.

ETORTEN DIRANAK.— Bergara'tik etorri da beren egotaldija eginda gero geure adizkide San Torkuato'tar Dunixi.

GOIKOKO.

Dr. ZUBIA
Especialista en enfermedades de
OIDOS, NARIZ y GARGANTA.
Legazpi, 1, 3.º Teléfono, 11.908. Donostia.

ABERIEN SANEURIJAK

Illa onen 14'tik 26'raño, Bilbao'ko abere iltegijan il dira:

388 idi ta bei: 57 eta 70, erriai erraldea.

617 txal: 70 eta 88, erriai erraldea.

593 txari: 2,40 eta 3,30 lauerleko aneukija.

6.971 Arkuna: 2,20 eta 2,55 laurleko aneukija.

Eguben-bariku deunetan, beste urtietan, azoka ederra batuten zan abere-iltegi inguruban eta zelako zezen, idi, bei ta txalak ikusten ziran; baserritarrak egun orretarako lodituten ebezan abere gorririk onenak eta ospetsu jarraituten zan notiñen begi aurretik bere gogorako pozarren eta bere sakelerako onureago, txindi ederrak eruaten ebezan bere etxera, baña gaur ez saririk ez saneurri alazekorik eztauko ta orregaitik oitura au galdu da gustiz. Aurten, iru bei patxadazko egon ziran baña ez gorenengo ikustekuak.

TXAKUR-ZALE.

En Larrinaga

Los presos comunistas iniciaron ayer la huelga del hambre

Los 46 comunistas que se encuentran en la cárcel de Larrinaga en calidad de presos gubernativos iniciaron ayer mañana la anunciada huelga del hambre.

Rechazaron las comidas reglamentarias que se les sirvieron como todos los días, permaneciendo en la actitud de quien está resueltamente decidido a no comer.

A la hora del rancho dejaron de presentarse a recogerlo. También se negaron a comunicar con nadie.

Como se sabe, esta actitud tiene por objeto protestar de su reclusión, que se ha prolongado ya durante dos meses largos y que consideran injustificada.

Entre los huelguistas encuéntranse significados comunistas de esta zona, como son Leandro Carro, Aurelio Aranaga, Dositeo Iglesias y Arsenio Bueno.

El orden no se alteró en la prisión.

Entre los reclusos que se encuentran en la cárcel, y que son unos doscientos, hubo el consiguiente movimiento de expectación ante la actitud de los presos gubernativos.

Por la tarde tampoco comieron los presos, prosiguiendo así la huelga.

Muebles "La Económica"
La casa que más barato vende. Especialidad en comedores y dormitorios.
García Salazar núm. 10. No confundirse
CASA VICENTE. Teléfono núm. 15.354.

Restaurant "Goti"
COMIDAS A TODAS HORAS
B. Aires, frente Teléfonos. Bilbao.

TRAJES DE NIÑO
Para la primera comunión
JUAN UGARTE, Belosticalle, 15.

GOBIERNO CIVIL

Reanudaron ayer el trabajo en la Babcock más de la mitad de los obreros

Sobre unos sucesos en Elantxobe

El gobernador civil enteró ayer a los periodistas de que se había iniciado la vuelta al trabajo con todo orden en los talleres de la factoría Babcock-Wilcox, habiéndose reintegrado a sus labores durante la mañana un cincuenta por ciento de los obreros que integran las plantillas. Concretamente, fueron 946 los operarios de los distintos departamentos los que se presentaron en sus puestos, probándose a juicio del gobernador en esta ocasión la disciplina de los obreros organizados y el buen sentido de la clase trabajadora en general.

Se espera que hoy se reintegrarán al trabajo los restantes obreros de la factoría o, por lo menos, la inmensa mayoría de ellos, pues hay que tener en cuenta que muchos de ellos se ausentaron en vista de que la huelga se prolongaba.

Por la tarde reanudaron el trabajo otros 150 obreros.

Al señor Calviño se le advertía satisfecho por el buen sesgo que había adquirido este conflicto. La reanudación del trabajo se efectuó sin que se produjera el menor incidente.

Dispuso el gobernador general que fuesen puestos en libertad los 14 detenidos por las coacciones cometidas con ocasión del plebiscito celebrado días pasados en Portugalete.

El señor Calviño enteró también a los periodistas de que había impuesto sendas multas de 500 pesetas a los vecinos de Elantxobe don José de Etxaniz y don Pedro de Amutxategi, concejal y alguacil de aquel Ayuntamiento, respectivamente, y don Santiago de Arriandiaga, cuyos hijos tomaron parte y se distinguieron en una manifestación de niños y niñas que tuvo lugar en aquella localidad el día 26 del pasado y durante la cual se gritó ¡gora Euzkadi azkatuta! ¡viva la República vasca! y ¡fuera los carabineros!, agrediéndose la parte posterior del edificio que éstos ocupan como cuartel.

La noticia de estas multas, con los demás detalles consignados, les fué facilitada a los periodistas por medio de una nota. No tuvieron ocasión de que el gobernador les ampliara la referencia, que recogemos tal como le fué facilitada a la Prensa en este centro oficial, prescindiendo por hoy de otras referencias que tenemos del suceso, en las que se especifican algunos detalles, entre ellos el de la intervención de algunos carabineros en los antecedentes de la manifestación de protesta.

La Babcock Wilcox nos ruega la publicación del siguiente aviso:

"Se recuerda al personal obrero que el plazo para reintegrarse al trabajo termina el próximo sábado, día 2 de abril, a las ocho de la mañana, y que transcurrido dicho plazo la Empresa queda en libertad para disponer de las plazas vacantes."

Visitaron al gobernador y conferenciaron con él extensamente los diputados a Cortes señores Egileor y Robles de Arangiz, quienes le ratificaron lo que días pasados dijeron a su secretario particular sobre la disciplina de las masas nacionalistas, mostrándole su agradecimiento por su actitud con respecto a los actos del Día de la Patria. Le interesaron la reapertura del Batzoki de Bermeo y la condonación de algunas multas, y le hablaron de la segregación de los municipios de Zamudio y Derio, pidiéndole una tregua para la presentación de algunas liquidaciones, que no es posible, por su importancia, llevar a cabo dentro del plazo fijado.

El cabello es una planta

Si queremos tener buenas plantas es preciso cuidarlas. Con mayor motivo el cabello requiere cuidados especiales para mantenerlo sano y abundante.

El Capilar Americano es un regenerador del cuero cabelludo. Pídase en perfumerías y droguerías de España y América.